

**FORU DEKRETU HONEN ENTZUNALDIA ETA JENDAURREKO
INFORMAZIOA EMATEKO TXOSTENA: FORU DEKRETUA, ZEINAK
ARAUAK EMATEN BAITITU NAFARROAKO FORU KOMUNITATEKO
IKASTETXE PUBLIKOETAN ETA PRIBATU ITUNDUETAN IKASLEAK
ONARTZEKO**

Ezarritako prozedurari jarraikiz, Nafarroako Foru Komunitateko ikastetxe publikoetan eta pribatu itunduetan ikasleak onartzeko arauak ematen dituen Foru Dekretuaren testua Gardentasunaren Atarian argitaratu zen 2020ko uztailaren 23tik abuztuaren 14ra, biak barne.

Aldez aurreko kontsultaren xedea da foru dekretu berriaren eraginpean gerta litezkeen herritarren eta ordezkariak duten erakundeen iritzia jasotzea honako aldaketa hauei buruz: ekimenarekin konpondu nahi diren arazoak, foru dekretua onesteko premia eta egokitasuna, arauaren xedeak eta aukeran dauden alternatibak, arauemaileak eta ez arauemaileak.

2020ko abuztuaren 14an, Hezkuntza Departamentuko Hezkuntzako Ikuskapen Zerbitzuko Eskolatze Bulegoaren postan bi mezu jaso ziren, alegazioak zituztenak Nafarroako Foru Komunitateko ikastetxe publikoetan eta pribatu itunduetan ikasleak onartzeko arauak ematen dituen Foru Dekretuaren testua aldatzeko:

- 1. alegazioa, CERMIN entitateak (Desgaitasunak dituzten pertsonen Nafarroako entitate ordezkarien batzordea) egina.
- 2. alegazioa, Borja Bacaicoa Rivera jaunak aurkeztua.

1.- CERMEN-EN ALEGAZIOEN ERANTZUNA:

a) DOKUMENTU OSORAKO ZEHARKAKO EKARPENAK:

Lehen ekarpena:

Gailu teknologiko irigarrien erabilera bermatzea, mailegu-bankuak sortzea barne. Ebaluatze bide, material eta metodoen irisgarritasuna ziurtatzea.

ERANTZUNA: Ez da kontuan hartu behar, zeharka aplikatzen baitira azaroaren 29ko 1/2013 Legegintzako Errege Dekretua eta Irisgarritasun Unibertsalari buruzko ekainaren 14ko 12/2018 Foru Legea.

Bigarren ekarpena:

Erabili beharreko terminologia: "hezkuntza laguntzako berariazko premia duten ikasleak eta egoera sozioekonomiko eta kultural ahulean dauden ikasleak". Horrela, dena izendatzen dugu LOE eta LOMCErekin bat etorrita.

ERANTZUNA: Zati batean onartzen da foru dekretuaren artikuluen testuan, hala behar den tokian. Lege Organikoan bi termino horien gainean ezartzen den tratamendua titulu berean egiten da (II. titulua. *Berdintasuna hezkuntzan*), baina kapitulu desberdinetan (I. kapitulua - *Hezkuntza laguntzako berariazko premia duten ikasleak*, eta II. kapitulua - *Hezkuntzako desberdintasunak konpentsatzea*). Aurretik esandakoaz gain, ez da ahaztu behar hezkuntza laguntzako berariazko premia duten ikasleen tipologia kontuan hartzen direla, lege organikoak berak ezartzen duen bezala, ikasleen baldintza pertsonalak edo eskola-historiakoak.

b) DOKUMENTUAREN ARTIKULUETARAKO EKARPENAK:

1. ekarpena - 5. artikulua: urdinez dagoena gehitu.

1. Gurasoek, legezko tutoreek edo, dagokionean, adinez nagusi diren ikasleek onarpen eskabideak telematikoki aurkeztu beharko dituzte, Hezkuntza

Departamentuak horretarako gaituko duen webgunea erabiliz. Bide telematikoak irisgarria eta ulergarria izan beharko du pertsona guztientzat. Ikastetxeek eskabidea izapidetzen lagunduko diete horretarako laguntza eskatzen duten familiei, batez ere, desgaitasuna duen pertsona bat guraso eta/edo tutore dutenei.

ERANTZUNA: Ez da kontuan hartu behar, zeharka aplikatzen baitira azaroaren 29ko 1/2013 Legegintzako Errege Dekretua eta Irisgarritasun Unibertsalari buruzko ekainaren 14ko 12/2018 Foru Legea. Lege horren 40. artikulua ezartzen du webguneek eta gailu mugikorrek guztiz irisgarriak izan behar dutela.

2. ekarpena - 23. artikulua: ezabatu marratutakoa.

c) Hezkuntza laguntzako berariazko premiak dituzten ikasleak eskolatzeko irizpideak betetzen direla gainbegiratzea, ~~batik-bat~~, egoera sozioekonomiko eta kultural ahulean daudenei dagokienez.

ERANTZUNA: Ekarpena onartzen da.

3. ekarpena - 28.1 artikulua: urdinez eta beltzez dagoena gehitu, eta marratutakoa ezabatu.

*1. Tokiko Eskolatzeko Batzordeen xedea da ikastetxeetan sartzeko eta eskolatzeko aukera berdintasuna sustatzea eta bermatzea, bere eskumen esparruko ikastetxeetan, foru dekretu honen aplikazio eremuan ezarritako mailetan ikasten duten ikasle guztientzat, bereziki **hezkuntza laguntzako berariazko premiak dituzten ikasleentzat eta** egoera ahulean dauden talde sozioekonomiko eta kulturaletako ikasleentzat ~~eta gure hezkuntza sisteman berandu sartzeko direnentzat~~.*

ERANTZUNA: Ekarpena onartzen da.

4. ekarpena - 28.2.b artikulua: ezabatu marratutakoa.

Lankidetzan aritzea ikastetxe guztiek lagun dezaten hezkuntza laguntzako berariazko premia duten ikasleen eskolatzeko ekitatiboan, bai eta egoera ahulean dauden talde sozioekonomiko eta kulturaletako ikasleen ~~eta gure hezkuntza sisteman berandu sartzeko direnen~~ eskolatzeko. Horretarako,

beste neurri batzuen artean, ikasle horien eskolatzea ahalik eta baldintza onenetan egin dadin egokienak iruditzen zaizkien irizpideak proposatzen ahalko dizkiote Nafarroako Eskolatzeko Batzorde Nagusiari.

ERANTZUNA: Ekarpena onartzen da.

5. ekarpena - 32. artikulua. Titulua: ezabatu marratutakoa.

Hezkuntza-laguntzako berariazko premia duten ikasleen ~~eta sisteman berandu sartzen diren ikasleen~~ banaketa orekatua

ERANTZUNA: Ekarpena onartzen da.

6. ekarpena - 32.1 artikulua: ezabatu marratutakoa eta kontsultatu berdez dagoena.

Hezkuntza laguntzako berariazko premia duten ikasleen eskolatzea errazteko eta hezkuntzarako eskubidea bermatzeko, egoera sozioekonomiko eta kultural ahulean dauden ikasleena barne, Hezkuntza Departamentuak ikastetxe publikoetako eta pribatu itunduetako ikaspostuen zati bat erreserbatu beharko du ikasle horientzat aurreinskripzio eta matrikulazio epea bukatu arte.

Halaber, ~~Hezkuntza Departamentuak baimena ematen ahalko du gela bakoitzeko baimendutako ikasle kopurua % 10 igo dadin, gehienez, berandu sartzen diren ikasleen eskolatzeko beharrei erantzuteko.~~

ERANTZUNA: Ez da kontuan hartu behar; izan ere, LOEren 87. artikuluan, "Oreka ikasleak onartzean" izenekoan, %10erainoko gehieneko portzentajea zehazten da.

7. ekarpena - 32.4 artikulua: berrantolatu, argitzeko eta ñabardurak eransteke.

Indize hori aintzat harturik, Hezkuntza Departamentuak aukera hauek izanen ditu:

a) *Gelako ikasle baimenduen kopurua %10 arte gehitzeko baimena ematea, indize horretan batez bestekoaren azpitik dauden ikasgeletan berandu sartzen diren ikasleen eskolatzeko-beharrei erantzuteko, eta baliabideak egoera berrira egokitzea.*

b) hala badagokio, dagokion irakaskuntza-mailarako oro har aurreikusitako ikasle-ratio txikiagoak aurreikustea, indize hori batez bestekoaren gainetik duten ikasgelen matrikulazio-aldi arrunta amaitu ondoren, matrikulazio-aldi berezian eta gerora sortutako aldian ikasle gehiago ez onartzeko.

ERANTZUNA: Ez da kontuan hartu behar. Aurrekoa gorabehera, alegazioan aipatzen den zehaztapena baloratu egin beharko da, hala badagokio, eta hala irizten bada, foru dekretu hau garatzeko foru aginduan jasotzen den garapenean.

2- BORJA BACAICOA RIVERA JAUNAREN ALEGAZIOAREN ERANTZUNA:

DOKUMENTUAREN TESTURAKO EKARPENA:

Foru Dekretuaren proiektuaren 14.1 artikuluan definitzen den bizilekuaren hurbiltasunaren lehentasunezko irizpideak kontuan hartuko du hurbiltasun lineala ere, hartara, bizilekutik edo lantokitik benetan hurbil dagoen eskolatzea lehenesteko.

ERANTZUNA: Ez da kontuan hartu behar. Aurrekoa gorabehera, Foru Dekretuaren proiektuaren 14.1 artikuluan definitzen den bizilekuaren hurbiltasunaren lehentasunezko irizpidea foru agindu baten bidez garatu beharko da. Foru agindu horrek “ikastetxearen eragin-eremua” eta “eragin-eremuaren alboko eremua” kontzeptuak definitu beharko ditu. Era berean, aipatu foru aginduan aztertu beharko da ea bizilekuaren hurbiltasun linealaren irizpidea erabiltzen den.

Iruñean, 2020ko urriaren 28an.

HEZKUNTZAKO IKUSKAPEN ZERBITZUKO
ZUZENDARIA

Alberto Urrutia Lecumberri
(Sinadura jatorrizkoan dago)